



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Udalbatza berria eratzeko bilkuraren akta

Bertan dira

Fco Javier Bereau Miquelarena jauna.
Jose Maria Alzuri Vertiz jauna.
Maria Larretxea Echeverria andrea.
Miren Ilarregui Belarra andrea.
Ainhoa Bereau Alchu andrea.
Pedro Francisco Mindegia Elizalde jauna.

Ezin etorria adierazi dute

Arkaitz Mindegia Baleztena jauna.

Idazkaria

Izaskun Mielgo Rey andrea.

Ituren herrian, Udaletxeko udalbatza-aretoan, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren hamazazpiko 17:00ak direnean, eta udaleko idazkaria bertan dela, apirilaren 3ko 3/2023 Foru Dekretuak maiatzaren 28rako deitu zituen udal-hauteskundeetan aukeratuak izan ziren eta albo batera aipatu diren zinegotzi hautatu berriak batzartu dira.

Bilera honen xedea da Udalbatza eratzeko bilkura egitea eta alkatea aukeratzea, Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren (aurrerantzean HAOL) 195. eta 196. artikuluetan, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak (aurrerantzean AFE) onartutako Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoa betez.

Bilkurari hasiera emanda, idazkariak bertan bildu direnei eratzeko-bilkura hau eta alkatea aukeratzea arautzen dituen araudiaren berri eman die, baita zinegotzia izateko eta beren karguaz jabetzeko bete beharreko baldintzen berri ere. Halaber, hautetsiak aldarrikatzeko aktaren berri eman du, Iruña zonaldeko Hauteskunde Batzordeak 2023ko ekainaren 2an emana.

ADIN MAHAIA ERATZEA

HAOLoren 195.2. eta AFEn 37.2 artikuluetan xedatutakoa betez, Adin Mahaia eratuko da, ekitaldian dauden adinez zaharrenak eta gazteenak osatuko dute; alegia, Jose Maria Alzuri Vertiz jauna mahaiburua, eta, Maria Larretxea Echeverria andrea mahaikidea. Idazkaria, berriz, udalarena bera izanen da, hau da, Izaskun Mielgo Rey andrea.

UDALBATZA ERATZEA

Aurkeztutako hautetsien kredentzialak eta akreditazioak egiaztatuko dituzte Adin Mahaikideek, eta onespena emanen diete.

Halaber, Adin Mahaiak, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta hori betez, bertan diren hautetsi guztiek udaletxeko idazkaritzaren aitzinean egon litekeen bateraezintasunei eta diru-sarrerak dakarzkieten edo ekar diezazkieketen jardueri buruzko aitorpena eta beren ondare-ondasunei buruzko aitorpena egin dutela egiaztatuko du.¹

¹ Beren segurtasun pertsonalean edo beren ondasunen nahiz negozioen segurtasunean, beren familiarrean, bazkideenean, langileenean nahiz berarekin harreman ekonomiko edo profesionala dutenen segurtasunean mehatxaturik dauden hautetsiek Lurralde Diputazioko idazkariaren aurrean egin dezakete beren ondare-ondasunen eta eskubideen aitorpena, edo, bestela, dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunaren



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jarraian, HAOLoren 108.8. artikuluan xedatutakoa betez, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan jasotako formularen arabera, hautetsiek, banan-banan, karguaren betebeharrak erregearekiko leialtasunez zintzo beteko dituztela, eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko dutela zin edo promes egingen dute. Bertan diren guztien aitzinean egingen dute, Zonaldeko Hauteskunde Batzordearen ziurtapenetan ageri diren ordenan.

Aurreko izapide guztiak eginda, bertan diren hautetsi guztiek beren zinegotzi-karguaz jabetuko dira. Horren ondoren, zinegotzi-hautetsien erabateko gehiengoa bilkuran dela egiaztatuta, Mahaiak, mahaiburuaren bitartez, udalbatza eratutzat emanen du.

ALKATEA AUKERATZEA

Jarraian, idazkari andreak, Adin Mahaiaren aginduz, HAOLoren 196. artikuluan alkatea aukeratzeko jasotako arauak irakurriko ditu.

Ondoren, mahaiburuak galdetuko du hauteskunde-zerrendaburuetatik norik aldarrikatzen duen bere burua alkate izateko hautagai. Honako hauek aurkeztu dute bere burua:²

Fco Javier Bereau Miquelarena jauna, EH BILDU alderdiaren hauteskunde-zerrendaburua³.

Mahaiburuak hautagai guztiei hitza emanen die, horiek nahi badute, beren hautagaitza aurkezteko osoko bilkurari hitz egin diezaioten. Ez da esku-hartzerik egon.

Jarraian, eta bozka sekreturen bitartez, alkatea aukeratu da. Horretarako, zinegotziak Adin Mahaira deituko dira Zonaldeko Hauteskunde Batzordearen egiaztagirietan ageri diren ordenan, alkatea aukeratzeko prestatutako kutxan beren botoa eman dezaten.

Bozketa amaituta, Adin Mahaiak boto-kontaketa egingen du. Emaita honako hau da:

	Letran	Zenbakitan
- Emandako botoak:	Bost	5
- Boto baliodunak:	Bost	5
- Boto zuriak:	Zero	0
- Balio gabeko botoak:	Zero	0

Boto baliodunak honela banatu dira:

-Fco Javier Bereau Miquelarena jaunak, 5 boto.

aurrean. Halakoetan, Diputazioak edo autonomia-erkidegoak ondorio horietarako sortutako Ondare Ondasunen Erregistro Bereziaz arduratzen den funtzionarioak emandako ziurtagiria, interesdunak aitorpena bete duela eta hori aipatu Erregistro Berezian jasota dagoela adieraziko duena, aurkeztu beharko du.

² 250 biztanle bitarteko udalerrietan, zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai.

³ Alderdi, Koalizio edo Taldea.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Hortaz, zinegotzi-kopurua 5 izanik, eta 5 botoen erabateko gehiengoa, HAOLoren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, Fco Javier Bereau Miquelarena jauna aukeratu dute alkate. Horrenbestez, mahaiburuak alkate izendatu du.⁴

Fco Javier Bereau Miquelarena jaunak alkate-kargurako aukeratu izana berariaz onartuta, karguaren betebeharrak erregearekiko leialtasunez zintzo beteko dituela, eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko duela zin edo promes egin du. Horren ondoren, karguaz jabetu, eta osoko bilkuraren buru jarriko da.

Bilera honen deia xedea beteta, alkate jaunak makila hartu eta hitz batzuk esan ditu.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkateak bilkura amaitutzat jo du goian aipatutako eguneko 17:45 direnean. Idazkaria naizen honek aktaren egiaztapena egiten dut.

ONIRITZIA
ALKATEA

⁴ Aipatu gehiengoa inork lortuko ez balu, hauteskundeetan herritarren bozka gehien jaso dituen zerrendako burua izendatuko dute alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa egingen da. 250 biztanle bitarteko udalerrietan, erabateko gehiengoa ezein zinegotzik lortuko ez balu, hauteskundeetan herritarren bozka gehien jaso dituen zinegotzia izanen da alkatea.

